

Entrenatzailea klubetan aritu ohi da.

2. PRINTZIO PEDAGOGIKOAK: AZALTZEA 3

-Exijentzia dosifikatzea: errazenarekin hasia eta zailtasuna handitzea ikastaroan zehar, elementu berriak sartuta.

-Adibidearen ekonomia: Aurrekoaren antzekoa. Adibide bat ematen badugu (ostiko-matea) soiletik hasiko gara, eta apurka-apurka gehituko ditugu zailtasunak.

-Ordena eta hurrenkera: Azaldutakoa antolatuta egongo da, eta inoiz ez da nahasgarria izango. Adibidez, piezen mugimendua azaltzean, ez naiz hasiko damatik, beste guztiak bezala mugitzen baita. Gazteluarekin edo alfilarekin hasiko naiz.

3. HAMABOST GAI TAKTIKO IZENDATZEA

1-Ahulezia zortzigarren lerroan: adibidez, gaztelua zortzigarrenean dagoela mate ematen dizutenean.

2-Defentsa eraistea: sakrifizioak, endroka suntsitzeko.

3-Eraso bikoitza: arerioaren bi pieza ukitzen ditugunean gure pieza bakarrarekin.

3-Xake bikoitza: jokaldi bat egin eta arerioaren erregeari xake ematen diogunean bi piezarekin.

5-Ageriko xakea: pieza bat kentzen dugunean (batzuetan, zerbait janez) eta arerioaren erregeari xake ematen diogunean, eta, beraz, hark ezin duenean pieza hori harrapatu, xakean dagoelako.

6-Itoa: konbinazio bat egiten dugunean, ito daitezen, gauzak oparitzu.

7-Zugzwang: arerioak jokaldirik ez izatea eta mugituz gero galtzea eragitea.

8-Iltzatzea: gaztelua iltzatzen diogu gure alfilaz, eta ezin du mugitu, erregea jango genukeelako.

9-Erakartzea: halabeharrez arerioaren pieza bat erakartzea helburu jakin batekin. Adibidez, ostiko-matea egiteko gaztelua erakarriko dugu, arerioaren erregea giltzaperatu dezan.

10-Desbideratzea: adibidez, gaztelu bat oparitzea (Gb1) nahitaez haren alfilaz jan diezagun (Ab3k b1en harrapatzen du); horrela, mate emango diogu zortzigarrenean, alfil horrek zaintzen zuen lauki batean (Gf1 mate).

11-Pieza defendatzailea ezabatzea: h7n mate mehatxua egiten badut, eta haren Zf6k defendatzen badu, Gf6 jokatuko du, eta gaztelua sakrifikatu, mate egiteko.